

Teknologiaren argi-ilunak



Inma Errea
IDAZLEA ETA
ITZULTZAILEA
@inmaerrea

Gizonak –70 bat urteko erretiroduna edo– udako apartamentuko elektrizitate-tarifa aldatu nahi zuen. Langileak adeitsu azaldu zion izan bazutela horretarako tarifa egokia. Hasi ziren tramiteekin, eta langileak helbide elektronikoa eskatu zion. Gizonak harridura-keinu bat egin zuen: “Ez daukat”. Ozenki esan zuen, zain ginenok entzuteko beste. Langileak irribarretsua erantzun zion: “Benetan?”. Ordurako, irriak eta zurrumurruak hedatuak ziren bulegoan.

Sentipen berezi bat jabetu zen nitaz. Arraroa zirudien, harritzekoa, garaiotan posta elektronik gabe bizitzeak. Halako tresnarik ez edukitzea, bestalde, oztopo bilakatzen ari zen gauza arrunt bat egiteko –elektrizitate-tarifa aldatzeko–. Baina, aldi berean, inbidia puntu bat igarri nuen nire (gure?) baitan: nolakoa izanen zen bizitza azken urteotako baliabide teknologikoen mende egon gabe?

Informatikak eta bestelako aurreramen teknologikoen gauza asko erraztu dizkigute gizakioi –ez guztiei, ordea!–. Baina abantailekin batera mendetasun batzuk ere ekarri dizkigute: ezin gara bizi mugikorrik edo posta elektronikorik gabe, eta etengabe beraiei begira erne eta adi egotera behartzen gaituzte halakoek.

Enpresa pribatuek eta administrazio publikoek ere norabide berean bultzatzen dute: legeek

eskubide gisa aurkezten digute komunikazio eta izapideetan aurreramen teknologikoak baliatzea, baina poliki-poliki betebeharrak bilakatzen ari da hasieran aukera zena.

Eta sare sozialen papera ere erabakigarria bihurtzen ari da demokraziari dagokionez: sare sozialek demokraziaren alde jokatu dute, eta jokatzen ari dira, munduan, baina, hain zuzen haien ahalmen demokratikoagatik, gero eta handiagoa da kontrol unibertsalaren arriskua.

Xavier Sala i Martín ekonomialari katalanak ez die muzin egiten berrikuntza teknologikoei. Aurkeztu berri duen *La invasión dels robots i altres relats d'Economia en colors* liburuaren harira dio saihestezinak direla berrikuntzak, eta hala onartu behar dugula. Baina aitortzen du berrikuntzak gero eta azkarrago doazela, eta badela berrikuntzek beraiek eta haien abiadura lasterrak kaltetutako jendea. Sala i Martín ez da ezkerreko ekintzaile bat –Columbiako Unibertsitateko irakaslea amerikartua Davoseko bilkuretarako gonbidatzen dute beti–, baina dio beharrezkoa dela mekanismoak sortzea haren hitzetan berrikuntzek beraiekin berez dakarten “suntsipen sortzaileak” kaltetutakoei aurrera egiten laguntzeko. Eta bi arrazoiengatik egin behar dela: etikagatik eta... egoismoagatik!

Hasieran aipatu dudan gizonak alabaren helbidea eman zuen elektrizitate-tarifa aldatzeko... ■

Familiabakoak



Leire Narbaiza
Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

Galdera batek zurtuta laga ninduen ETBko *Ur Handitan* saioan. Xabier Madariagak Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizuri egin-dako honexek: Familiarik ez baldin baduzu uste duzu dela musikaren erruagatik?

Familiarik ez zeukala esan zion, aurretik haren arreba elkarrizketatu arren. Eragindako harriduraren ostean, gure amamaren sasoiako andreak etorri zitzaizkidan burura, halaxe galdetzen zuten-eta seme-alaben kontuaz.

Zaharmindu usaina hartu nion itaunari, badi-rudielako umerik ekarri ezean, ez dugula familiarik. Alferrik da gogoratzea guraso, neba-arreba, ilobak edota koinatuak izan genitzakeela, buru

horietan familiabakoak izango gara beti kumerik ez dugunok.

Jakina, ezin aitatuko diegu lagun eta bizikide batzuk ere senideak bezain familiako direna guretako. Bizitzako trantzeak pasatzen, eta aurrera egiten laguntzen diguten pertsona begiko horiek ez dira odoleko familiakoak, ez dugu DNArrik konpartitzen, baina bizipenak, pozak eta tristurak elkar banatu ditugu, bidea arinago egiteko asmotan. Aukeratutako gure familia dira, bestea bezain garrantzitsua.

Seme-alabak munduratu izanak ez duelako kategoria handiagoa ematen, ezta estatus altuagoa ere. Sendia modu askotakoa izan litekeelako, hain zuzen ere. ■